| <p>b) Dirulaguntza ematea funtsatzen duen jarduera egitea edo horretarako jokabidea hartzea.</p> <p>c) Entitate emaileari justifikatzea egin dela dirulaguntza emateko edo jasotzeko nahitaezko den jarduera, edo hartu dela hura egiteko jokabidea, eta, era berean, betetzen direla horretarako bete beharreko baldintzak.</p> <p>d) Entitate emaileak, hala badagokio, egiten dituen egiaztapen-jarduketan mendeantzen jartzea, bai eta ematen diren dirulaguntzen eta laguntzen arloan Ogasun eta Finantza Sailari dagokion finantzen kontrolerako jarduketan eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren fiskalizazio-prozeduren mendeantzen jartzea ere.</p> <p>e) Edozein administrazio edo erakunde publikok, Estatu mailakoa izan zein nazioartekoa, dirulaguntza edo laguntzaren bat emanez gero xede bererako, dirulaguntza hau eman duen erakundeari horren berri ematea.</p> <p>f) Laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, egiaztatzea egunean dituztela zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak. Ezingo da onuradun izan, orobat, dirulaguntzen</p> | <p>b) Realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.</p> <p>c) Justificar ante la entidad concedente, en su caso, la realización de la actividad o la adopción del comportamiento, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión o disfrute de la ayuda para cada mes.</p> <p>d) El sometimiento a las actuaciones de comprobación, a efectuar por la entidad concedente, en su caso, y a las de control financiero que corresponden al Departamento de Hacienda y Finanzas, en relación con las subvenciones y ayudas concedidas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.</p> <p>e) Comunicar a la entidad concedente, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedente de cualesquiera Administraciones o Entes Públicos nacionales o internacionales.</p> <p>f) Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social. Tampoco podrá obtener la</p> |
|---|---|





itzulketa dela-eta egin beharreko ordainketak egunean ez dituen. Ezingo da dirulaguntzarik ordaindu, harik eta onuradunak egiaztatu arte egunean dituela zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak. Hala, bada, galdu egingo du ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea, eta abian jarriko da dekretu honen 21. artikuluan eta hurrengoetan baldintzak betetzen ez direnerako aurreikusten den prozedura.

Edozelan ere, goian aipatu diren inguruabarrak egiaztatzeke, ez da inongo erakunderen ziurtagiririk aurkeztu behar. Izan ere, eskabidea aurkeztearekin batera, eskatzaileak baimena ematen die Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari eta Interbiak erakundeari zuzenean eta telematikoki eskura ditzaten inguruabarrok egiaztatzeke agiriak.

III. TITULUA

DIRULAGUNTZAK KUDEATZEA ETA JUSTIFIKATZEA

21. artikulua.- *Jarraipena.*

Foru dekretu honetan jasotzen diren dirulaguntzen onuradunek agiri bidez frogatu beharko dute egin dituztela diruz lagunduriko jarduerak eta betetzen

condición de beneficiaria quien no se halle al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones. No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la persona beneficiaria no acredite el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social, por lo que perderá el derecho al cobro del importe de subvención a pagar, iniciándose el procedimiento de incumplimiento previsto en los artículos 21 y siguientes del presente Decreto.

En todo caso, no habrá de aportarse certificación del organismo correspondiente acreditativo de dichas circunstancias, sino que la presentación de la solicitud conlleva la autorización del solicitante para que el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial e Interbiak obtengan de forma directa la acreditación de dichas circunstancias de forma telemática.

TITULO III

GESTIÓN Y JUSTIFICACIÓN DE LAS SUBVENCIONES

Artículo 21.- *Seguimiento.*

Las personas beneficiarias de las subvenciones previstas en el presente decreto foral deberán justificar documentalmente la realización de las





dituztela dirulaguntza jasotzeko baldintzak. Hori guztia, foru dekretu honetan, dagokion deialdian nahiz laguntzak emateko foru aginduan jasotzen den moduan egin beharko dute, bai eta, edozein momentutan, hala eskatzen badie Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak nahiz kasuan-kasuan dagokion erakunde laguntzaileak.

22. artikulua.- *Dirulaguntza ordaintzea eta aurrerakina jasotzeko aukera izatea.*

Dirulaguntzak hilero emango dira, eskatzaileek aipatutako epean foru dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen denean.

Horretarako, Interbiak Bizkaia S.A. - M.P. entitate kudeatzaileak dirulaguntzaren onuradunen zerrenda bidaliko dio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari, dirulaguntza eman eta ordaintzeko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen duen egiaztagir baten bidez, dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

Dirulaguntzaren betebeharra aitortu eta hura ordaindu aurretik, pertsona onuradunek zerga-beteberrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da.

Ez dago aukerarik dirulaguntzaren aurrerakinik

actividades apoyadas, así como el cumplimiento de las condiciones a que se sujeta su obtención, en la forma prevista en el presente decreto foral, en su caso, en la correspondiente convocatoria y en la orden foral de su concesión, así como en cualquier momento a requerimiento del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y en su caso, de la entidad colaboradora correspondiente.

Artículo 22.- *Abono de la subvención y posibilidad de anticipo.*

Las subvenciones se otorgarán mensualmente una vez se haya comprobado que los solicitantes cumplen en el citado período con los requisitos exigidos en este Decreto Foral.

Para ello, la entidad gestora Interbiak Bizkaia S.A. M.P. remitirá al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, la relación de personas beneficiarias de la subvención mediante certificado acreditativo del cumplimiento de las condiciones para la concesión y el abono de la subvención según lo dispuesto en este decreto.

Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las personas beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social.

No se considera la posibilidad de abonar anticipos





ordaintzeko.

de la subvención.

23. artikulua.- Itzulketa.

Onuradunek jasotako dirulaguntzak itzuli beharko dituzte baldin eta ez badituzte betetzen Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan eta Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Dekretuaren III. tituluko I. kapituluan ezartzen diren betebeharrak.

Gehiegizko finantzaketa gertatzen bada aldi berean beste laguntza batzuk jasotzeagatik (kasu hori 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasota dago), itzuli egin beharko da behar denaren gaineratik jasotako kopurua.

Edozein kasutan ere, dagokion berandutze-interesa aplikatuko da.

IV. TITULUA

EZ-BETETZEAK ETA ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK

24. artikulua.- Ez-betetzeak.

Ez badira betetzen foru dekretu honetan eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako betekizunak nahiz ebazpenean ezar litezkeen baldintzak, orduan Foru Administrazioak ematen

Artículo 23.- Reintegro.

Procederá el reintegro de las subvenciones obtenidas por las personas beneficiarias por las causas establecidas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el Título III, Capítulo I, del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

En el supuesto de sobrefinanciación, por concurrencia con otras ayudas, contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, procederá el reintegro por la cantidad excedida.

En todo caso se aplicará el correspondiente interés de demora.

TITULO IV

INCUMPLIMIENTOS E INFRACCIONES ADMINISTRATIVAS

Artículo 24.- Incumplimientos.

El incumplimiento de los requisitos establecidos en el presente decreto foral y demás normas aplicables, así como las condiciones que, en su caso se establezcan en la resolución, dará lugar a la





dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra erregulatzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluaren xedatutakoa aplikatuko da.

Orobat izango da aplikatzekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 1998ko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak arautzen duen zehapen-prozedura.

25. artikulua.- Arau-haustea eta zehapenak.

Programa honen bidez ematen diren dirulaguntzei aplikagarri zaien arau-hausteen eta zehapenen araudia Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluaren ezarritakoa izango da.

26. artikulua.- Araubide juridikoa.

Programa honetan ezarritakoaren arabera ematen diren dirulaguntzek programan bertan ezarritakoari jarraituko diote, bai eta honako hauetan xedatutakoari: 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena; Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duena, eta, ordeztaille gisa, Administrazio Zuzenbidearen arauak.

Orobat aplikatuko da Bizkaiko Gardentasunari

aplicación de lo previsto en el título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Asimismo, será de aplicación el procedimiento sancionador regulado por la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 25.- Infracciones y sanciones.

El régimen de infracciones y sanciones aplicable en razón de las subvenciones de este programa será el establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Artículo 26.- Régimen jurídico.

Las subvenciones otorgadas conforme al presente programa se regirán por lo establecido en él; en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral; en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones; y, con carácter supletorio, en las normas del Derecho Administrativo.

Así mismo será de aplicación lo dispuesto en la





buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan xedatutakoa.

Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero de transparencia de Bizkaia

XEDAPEN GEHIGARRIAK

DISPOSICIONES ADICIONALES

Lehen xedapen gehigarria.- *Egungo onuradunak.*

Disposición adicional primera.- *Personas beneficiarias actuales.*

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko irailaren 13ko 103/2022 Foru Dekretuaren bidez onartutako dirulaguntza-programaren babesean emandako dirulaguntzen onuradunek onuradun izaten jarrai dezakete 2023. urtean, foru dekretu honek onartutako programaren arabera. Nahikoa izango da, horretarako, onuradun izaten jarraitu nahi dutela adieraztea, baldin eta ez bada aldaketarik izan laguntza ematea eragin zuten baldintzetan. Onuradunek dirulaguntzak berritzeko inprimakia baino ez dute bete beharko, web orri honetan: www.Interbiak.bizkaia.eus; edo, bestela, idazki bat bidali Interbiaki, foru dekretu honen bidez onartzen den programaren III. ERANSKINean jasota dagoen eredua beteta.

Las personas beneficiarias de las ayudas otorgadas al amparo del programa de subvenciones aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 103/2022, de 13 de septiembre de 2022, podrán mantener tal condición durante el año 2023 conforme al programa aprobado por el presente decreto foral, con la manifestación de su voluntad en tal sentido, siempre que no se haya producido variación en los requisitos que motivaron el otorgamiento. Para ello, únicamente deberán cumplimentar el formulario existente para la renovación de subvenciones, disponible en la página web www.Interbiak.bizkaia.eus, o dirigir un escrito a Interbiak cumplimentando el modelo contenido en el ANEXO III del programa aprobado por el presente decreto foral.

Bigarren xedapen gehigarria.- *Foru aldundiek zuzenean kudeaturiko beren titulartasuneko bidez azpiegitura bidesaridunak erabiltzen dituzten persona fisikoentzako 2023rako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen Foru Dekretura hedatzeko eskaera,*

Disposición adicional segunda.- *Solicitud extensiva al Decreto Foral por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria para el año 2023 de subvenciones destinadas a personas físicas usuarias de las infraestructuras viarias, gestionadas directamente, sometidas a peaje titularidad de las diputaciones forales.*





Foru dekretu honetan araututakoaren bidez egindako eskabideak ere kontuan hartuko dira, onartzen diren unetik, eskatzaileak I. eranskinean dagokion aukeran ondorengoa adierazten badu: Foru aldundiek zuzenean kudeaturiko beren titulartasuneko bide-azpiegitura bidesaridunak erabiltzen dituzten persona fisikoentzako 2023rako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretuan aurreikusitako dirulaguntza kalkulatzeko ere egindako eskaera kontuan hartzeko.

Horrela, foru dekretu hau eta foru aldundiek zuzenean kudeaturiko beren titulartasuneko bide-azpiegitura bidesaridunak erabiltzen dituzten persona fisikoentzako diru-laguntzak arautzen dituen foru dekretua indarrean sartzen direnetik aurrera, hilero, onartutako eskaera foru dekretu bakoitzean jasotako aurreikuspenen arabera kalkulatu da modu independentean, eta, beraz, onuradunak, horietako bakoitzean aurreikusitako baldintzen arabera, diru-laguntzaren zenbateko bat edo bi lortu ahal izango ditu edo ezer ez.

Hirugarren xedapen gehigarria.- De minimis laguntzak.

Foru dekretu honen bidez onartzen den

Las solicitudes cursadas a través de lo regulado en el presente decreto foral, siempre que el solicitante marque en la opción correspondiente en el Anexo I, se considerarán también incluidas, desde el momento de su aceptación, para el cálculo de la subvención prevista en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueben las bases reguladoras y la convocatoria para el año 2023 de subvenciones destinadas a personas físicas usuarias de las infraestructuras viarias, gestionadas directamente, sometidas a peaje titularidad de las diputaciones forales.

De esta forma, y de manera mensual desde la entrada en vigor del presente decreto foral y el correspondiente al decreto foral que regula las subvenciones destinadas a personas físicas usuarias de las infraestructuras viarias, gestionadas directamente, sometidas a peaje titularidad de las diputaciones forales, la solicitud aprobada será calculada conforme a las previsiones recogidas en cada uno de los decretos forales de manera independiente, con lo que la persona beneficiaria podrá obtener, en función de los requisitos previstos en cada uno de ellos, ninguno, uno o dos importes de subvención.

Disposición adicional tercera.- Ayudas de minimis.

Las subvenciones contenidas en el programa





programako dirulaguntzak salbuetsita daude Europako Batzordeari jakinarazi behar izatetik, honako hauetan ezarritakoaren arabera: Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren 87. eta 88. artikulua; Kontseiluaren 2015/1588 (EB) Erregelamendua, 2015eko uztailaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua estatuaren laguntza horizontalen kategoria jakin batzuei aplikatzeari buruzkoa, eta Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

Laugarren xedapen gehigarria.- Aurrekontuko kreditua.

1. Foru dekretu honetan erregulaturiko dirulaguntzak honako aurrekontu-partida honen kargura ordainduko dira: Saila (10), Programa (453115), Ekonomikoa (46999), Zentro Kudeatzailea (1003), Proiektua (2022/0044); partida horren izendapena, gutxi gorabehera, 4.500.000,00 euro izango da. Baliteke partida hori aldatzea, aintzat harturik zer ezartzen duen 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41. artikulua.

2. Aurrekontuei buruzko 5/2006 Foru Arau

aprobado por el presente decreto foral están exceptuadas de la obligación de ser notificadas a la Comisión Europea en función de los artículos 87 y 88 del Tratado Constitutivo de la Unión Europea y los Reglamentos (UE) n.º 2015/1588 del Consejo, de 13 de julio de 2015, sobre la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a determinadas categorías de ayudas estatales horizontales y n.º 1407/2013 de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis.

Disposición adicional cuarta.- Crédito presupuestario.

1. Las subvenciones reguladas en el programa aprobado por el presente decreto foral se abonarán con cargo a la partida consignada como: Departamento 10, Programa 453115, Económico 46999, Centro Gestor 1003 Proyecto 2022/0044, cuya asignación tendrá como importe aproximado la cantidad de 4.500.000,00 euros. Siendo posible su modificación de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 41 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005.

2. De conformidad con lo establecido en el artículo





Orokorren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, programa honetan araututako dirulaguntzen kontzesioak baldintza bat izango du: haiek finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izatea, bestela kontzesioa eten egingo litzateke eta.

Bostgarren xedapen gehigarria.- Ofizioz alta ematea Erakunde eta Pertsona Fisikoen Erregistroan eta egoitza elektronikoan.

Eskabidea aurkezten denean edo berritzen denean, laguntza eskatzen duen pertsona fisikoari alta emango zaio, ofizioz, bi sail hauen Entitate eta Pertsona Fisikoen Erregistroan: Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila. Horrez gainera, teknikoki posible denean, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan ere emango zaio alta, ofizioz.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen xedapen iragankorra.- Araubide iragankorra.

2022. urterako dirulaguntzetarako eskaerak honako foru dekretu honetan xedaturikoaren arabera ebatziko dira, beraren babesean aurkeztuak baitira: Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko irailaren 13ko 103/2022 Foru Dekretua, zeinaren bidez onartzen baitira AP-68 azpiegitura (Bilbo-Zaragoza autobidea) foru aldundien

56.3 de la Norma Foral 5/2006, General Presupuestaria, la concesión de la subvención regulada en el programa queda sometida a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para su financiación.

Disposición adicional quinta.- Alta de oficio en el Registro de entidades y personas físicas y en sede electrónica.

En el momento de la presentación de la solicitud o de la renovación de la solicitud la persona física solicitante de la ayuda será dada de alta de oficio en el Registro de entidades y personas físicas del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad. Igualmente, cuando técnicamente sea posible se dará de alta de oficio en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Disposición transitoria primera.- Régimen transitorio.

Las solicitudes de subvenciones para el año 2022 presentadas al amparo del Decreto Foral 103/2022, de 13 de septiembre de 2022 de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria para el año 2022 de subvenciones destinadas a personas físicas usuarias de la infraestructura AP-





titulartsauneko ordainpeko tarteetan erabiltzen dituzten pertsona fisikoei zuzendutako dirulaguntzetarako 2022. urterako oinarri arautzaileak eta deialdia.

Bigarren xedapen iragankorra.- 2022ko abendu- eskabideak

1. 2022ko abenduan eginiko joan-etorriei dagozkien dirulaguntza-eskabideak ebatzeko, aintzat hartuko da honako foru dekretu honek ezarritako araubide juridikoa: Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko irailaren 13ko 103/2022 Foru Dekretua zeinaren bidez onartzen baitira AP-68 azpiegitura (Bilbo-Zaragoza autobidea) foru aldundien titulartsauneko ordainpeko tarteetan erabiltzen dituzten pertsona fisikoei zuzendutako dirulaguntzetarako 2022. urterako oinarri arautzaileak eta deialdia.

2. Dirulaguntza horiek foru dekretu honen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako partidaren kargura ordainduko dira.

3. Xedapen iragankor honetan arautzen diren dirulaguntzen ebazpenen aurka aurkezten diren errekurtsioak ebatziko dira, eta, baiesten badira, xedapen iragankor honen aurreko zenbaki bietan ezarritakoaren arabera ordainduko dira.

68 (autopista Bilbao-Zaragoza) en los tramos sometidos a peaje y de titularidad de las diputaciones forales, se resolverán de acuerdo con lo dispuesto en dicho decreto foral.

Disposición transitoria segunda.- Solicitudes de diciembre de 2022

1. Las solicitudes de subvenciones correspondientes a trayectos realizados durante el mes de diciembre de 2022 serán resueltas conforme al régimen jurídico establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 103/2022, de 13 de septiembre de 2022, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria para el año 2022 de subvenciones destinadas a personas físicas usuarias de la infraestructura AP-68 (autopista Bilbao-Zaragoza) en los tramos sometidos a peaje y de titularidad de las diputaciones forales.

2. El abono de estas subvenciones se realizará con cargo a la partida establecida en la Disposición adicional cuarta del presente decreto foral.

3. Los recursos que pudieran interponerse frente a las resoluciones de las subvenciones reguladas en esta Disposición transitoria serán resueltos y, en los casos en que resulten estimados, las subvenciones abonadas conforme a lo establecido en los anteriores dos apartados de esta Disposición transitoria.





XEDAPEN INDARGABETZILEAK

Xedapen indargabetzaile bakarra.- Indarrean dagoen dirulaguntzen programa indargabetzea.

2022ko irailaren 13ko 103/2022 Foru Dekretuaren bidez onarturiko dirulaguntzen programa 2022ko abenduaren 31ko 24:00ak arte egongo da indarrean (Bizkaiko Foru Aldundiaren 103/2022 Foru Dekretua, irailaren 13koa, zeinaren bidez onartzen baitira AP-68 azpiegitura (Bilbo-Zaragoza autobidea) foru aldundien titulartasuneko ordainpeko tarteetan erabiltzen dituzten pertsona fisikoei zuzendutako dirulaguntzetarako 2022. urterako oinarri arautzaileak eta deialdia). Une horretan, indargabetu egingo da foru dekretu hori, baina betetzekoa izango da lehen xedapen iragankorrean adierazitakoa eta berdin aplikatuko zaizkie foru dekretuaren oinarriak aurkeztu bai baina data horren ondoren oraindik ebazteko egon litezkeen errekurtsioei.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako lehen xedapena.- Aurrekontu-aldaketak.

Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluan ezarritakoaren babesean (5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onesten du dekretu horrek), zenbateko osoa handitu ahal izango da, bai eskuragarri dauden kredituak gehitu direnean —

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

Disposición derogatoria única.- Derogación del programa de subvenciones vigente.

El programa de subvenciones aprobado por el Decreto Foral 103/2022, de 13 de septiembre de 2022, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria para el año 2022 de subvenciones destinadas a personas físicas usuarias de la infraestructura AP-68 (autopista Bilbao-Zaragoza) en los tramos sometidos a peaje y de titularidad de las diputaciones forales, se mantendrá en vigor hasta las 24:00 horas del día 31 de diciembre de 2022, momento en que resultará derogado, sin perjuicio de lo indicado en la Disposición Transitoria Primera, y de la aplicación de sus bases a los recursos que pudieren haberse presentado y estuvieran pendientes de resolver tras la fecha indicada.

DISPOSICIONES FINALES

Disposición final primera.- Modificaciones presupuestarias.

Al amparo de lo establecido en el artículo 43 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, la cuantía total podrá ser ampliada en un importe adicional, bien cuando exista un aumento de los créditos





kreditu-zabalkuntza, -sorrera edo -txertatzearen ondorioz—, bai kopuru osagarri bat dagoenean — aurreko deialdietako eskaerak aurreikusi baino zenbateko txikiagoan ebaztearen ondorioz—. Kasu horietan, kreditu osagarri hori soilik izango da eraginkorra baldin eta kreditu horren erabilgarritasuna adierazita badago. Adierazpen hori dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Handitze hori eskumena duen organoak baimendu beharko du.

disponibles derivado de la aprobación de ampliaciones de crédito, generaciones o incorporaciones de crédito, bien cuando exista cuantía adicional proveniente de convocatorias anteriores resueltas por importe inferior al previsto para las mismas; quedando condicionada la efectividad de la cuantía adicional a la declaración de disponibilidad del crédito, que deberá efectuarse en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención. Dicha ampliación será autorizada por el órgano competente para ello.

Amaierako bigarren xedapena.- *Erregelamenduz garatzeko gaikuntza.*

Ahalmena ematen zaio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatuari foru dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta ezartzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan.

Disposición final segunda.- *Habilitación para el desarrollo.*

Se faculta al Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral.

Amaierako hirugarren xedapena.- *Indarrean jartzea eta indarraldiaren amaiera.*

Foru dekretu hau 2023ko urtarrilaren 1eko 00:00etan jarriko da indarrean eta 2023ko abenduaren 31ko 24:00etan amaituko da beronen indarraldia.

Disposición final tercera.- *Entrada en vigor y finalización de la vigencia.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor a las 00:00 horas del 1 de enero de 2023, finalizando su vigencia el día 31 de diciembre de 2023 a las 24:00 horas.



I. ERANSKINA / ANEXO I
Dirulaguntzarako eskabidea / Solicitud de subvención

Adierazi zein azpiegitura erabiltzeko eskatzen den diru-laguntza / Marque para el uso de qué infraestructuras solicita la subvención	
AP-68 (Bilbao-Zaragoza autopista) foru aldundien titularsuneko zati bidesariduna / Infraestructura AP-68 (autopista Bilbao-Zaragoza) en los tramos sometidos a peaje y de titularidad de las diputaciones forales	
Bizkaia, Gipuzkoa (AP-1 eta AP-8) eta Arabako (AP-1) foru aldundien titulartasunekoak diren eta zuzenean kudeatzen diren bide-azpiegitura bidesaridunak / Infraestructuras viarias, gestionadas directamente, sometidas a peaje de titularidad de las Diputaciones Forales de Bizkaia, Gipuzkoa (AP-1 y AP-8) y Araba (AP-1)	

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

NANA/DNI:			
ABIZENAK / APELLIDOS:			
IZENA / NOMBRE:			
HELBIDEA / DIRECCION:			
HERRIA / MUNICIPIO:		POSTA K / C. POSTAL:	
L. HISTORIKOA / T. HISTORICO:	BIZKAIA	TELEFONOA / TELEFONO:	
OBE-ZK. (osoa) N° OBE (completo)			
MATRIKULA / MATRICULA			
E-MAILA / E-MAIL: (Guztiz beharrezkoa, dirulaguntzari eta autopistari buruzko mezuak bidaltzeko / Imprescindible para comunicaciones relacionadas con las subvenciones y la autopista)		----- @ -----	
<u>Aurkeztu beharreko dokumentazioa:</u>		<u>Documentación a presentar:</u>	
1	NANA	DNI	
2	Eskatzailearen gidabaimena indarrean	Carnet de conducir de la persona solicitante en vigor	
3	Ibilgailuaren zirkulazio-baimena	Permiso de circulación del vehículo asociado	
4	Eskatzailearen banku-kontua egiaztatzeko ziurtagiria, finantza-erakundearen emana, eskatzailearen kontuaren eta OBEaren titulartasuna egiaztatzen duena (kontu horretan zordundu behar dira ordainsari telematikoak).	Documento acreditativo, expedido por la entidad financiera, de la cuenta bancaria de la persona solicitante en donde se cargarán los peajes telemáticos, que acredite la titularidad de la cuenta y del OBE asociado.	
5	Erantzukizunpeko adierazpena (II. ERANSKINA)	Declaración responsable (ANEXO II)	





Hemen aurkeztutako edozein datu aldatzekotan, Interbiak sozietateari jakinarazi beharko zaio (baita kontu-zenbakia, matrikula eta OBE zenbakia aldatu bada ere; baita gida baimenean gerta daitezken aldaketak ere. Horretarako behar diren dokumentuak aurkeztu beharko dira). Aldaketen baliozkotzea 7 artikuluan aurrez ikusitakoari baldintzatuta egongo da.

Eskabide hau sinatzeak berekin dakar Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Foru Sailari eta Interbiak sozietateari baimena ematea egiaztatzeko ea benetakoak diren interesdunak eskabidean emaniko datuak, eta erabilera partikularreko ibilgailu arina ez dela erabiltzen ezin jardura profesional, enpresariak edo ekonomikotarako.

Interesdunak ematen dituen datuak foru dekretu honetatik eratorritzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (erregelamendu horren bidez, Datuak babesteko erregelamendu orokorrari buruzko 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen da) eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa. Foru dekretu honek aurrez ikusitakoaren arabera, datuak zuzenki erlazionatutako organismoei komunikatu ahal izango zaizkie foru dekretuan jasotako aurreikuspenen kudeaketa dela eta. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik. Foru dekretu honetan aurrez ikusitakoaren kudeaketa administratiborako beharrezko epean zehar bakarrik mantenduko dira datuak.

Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezereztzeko ("ahaztua izateko eskubidea"), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan erreboka dezake lehen adierazitako onarpena. Interesdunei jakinarazten zaie Interbiak Bizkaia S.A.M.P.ek (helbidea: Kanariar Uharteak, 19, 1. solairua, 48015, Bilbo) eta Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailak tratatuko dituztela datu pertsonalak entitate eta pertsona fisikoen saileko erregistroari dagokionez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak bere egoitza elektronikoki dagokionez.

Horrez gainera, harremanetan jar daiteke adierazitako erakundeetan datuak babesteko dauden ordezkariarekin; horretarako, idazki bat bidali behar dio Bizkaiko Foru Aldundiko Datuak Babesteko ordezkariari; helbide honetara: Kale Nagusia, 25, 48009, Bilbo.

Halaber izango du eskubidea erreklamazioa aurkezteko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean.

Bilbon, 2023ko _____ren ____ (e)(a)n

Sin/Fdo. _____

El cambio de cualquiera de los datos deberá ser comunicado a Interbiak (incluido el cambio de OBE, matrícula, nº de cuenta bancaria o variaciones en el carnet de conducir, adjuntando la documentación correspondiente) y su validación estará condicionada a lo previsto en el artículo 7.

La firma de la presente solicitud conllevará la autorización al Departamento Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y a Interbiak para comprobar cualesquiera de los datos consignados por la persona interesada en la misma, así como la no afectación del vehículo ligero de uso particular a actividad profesional, empresarial o económica alguna.

De acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos de carácter personal y garantías de los derechos digitales, los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del presente Decreto Foral. Conforme a lo previsto en el presente Decreto Foral, los datos podrán ser comunicados a los organismos directamente relacionados con la gestión de las previsiones recogidas en el Decreto Foral. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada. Los datos se conservarán durante el plazo necesario para la gestión administrativa de lo previsto en el presente Decreto Foral.

En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión ("derecho al olvido"), limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Interbiak Bizkaia S.A. M.P., con domicilio en Islas Canarias, 19 - 1º, de 48015 Bilbao y por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial en cuanto al Registro de entidades y personas físicas departamental y por la Diputación Foral de Bizkaia en relación a su sede electrónica.

Asimismo, podrá contactar con la persona delegada de protección de datos de las organizaciones indicadas dirigiendo un escrito a: Delegada de Protección de Datos de la Diputación Foral de Bizkaia, Gran Vía 25, 48009 Bilbao..

También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos.

Bilbao, a ____ de _____ 2023

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatua

Diputado foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia



II. ERANSKINA**Erantzukizunpeko adierazpena**

.....
..... JAUNAK/ANDREAK
.....NAN zenbakidunak,
jakinarazpenetarako helbidea (helbidea, posta-kodea eta udalerrria)
.....
.....duenak

HAU ADIERAZTEN DU:

Bizkaian erroldatuta dagoela eta Bizkaian duela zerga-egoitza.

Gidabaimena indarrean duela

Egunean dagoela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dagokionez, dirulaguntzen araubidea arautzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 17.2 a) artikuluan ezartzen den moduan.

Ez duela debekurik dirulaguntzen onuradun izateko, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Erabilera partikularreko ibilgailu arina ez da erabiltzen ezein jarduera profesional, enpresariak edo ekonomikotarako.

Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

Nire jokaera eta/edo ibilbide pertsonala, ezta berdintasun-printzipioen aurkakoak ez dira izan, ezta arau-hauste larriagatik zigortua edo erabaki administratiboagatik zigortua edo epailearen sententzia irmoak, Langileen Estatutuaren edo ta hitzarmen kolektibo aplikagarriko tratu-berdintasunaren aukera gaineko beharrak ez betetzeagatik, sexu-arrazoiagatik erabaki diskriminatzaileengatik; laneko sexu-jazarpenagatik, hauek denak martxoaren 22ko, 3/2007 lege organikoan emakumeetako eta gizonetako berdintasun eraginkorrerako ezarritakoaren arabera

Baimena ematen diela Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Foru Sailari eta Interbiak sozietateari bere izenean eskatu ditzan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko informazioa eta, hala badagokio, ziurtagiriak, bai eta hemen adierazitakoa benetakoa den egiaztatzeko behar den beste edozein informazio ere.

Eta horrela jasota gera dadin, dirulaguntzarako eskabide honekin batera aurkeztu behar den dokumentazioaren ondorioetarako:

Bilbon,(e)koaren(e)(a)n

Sinadura:

ANEXO II**Declaración responsable**

DOÑA/DON.....

.....

con D.N.I. nº.....

y domicilio a efecto de notificaciones (dirección, código postal y municipio).....

.....

DECLARA

Estar empadronado y tener el domicilio fiscal en Bizkaia.

Disponer del carnet de conducir en vigor.

Encontrarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social en los términos del art. 17.2 a) del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

No estar incurso en prohibición para obtener la condición de beneficiaria de la subvención, a tenor de lo dispuesto en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

El vehículo ligero de uso particular asociado a esta solicitud no está afecto a actividad profesional, empresarial o económica alguna.

No haber sido sancionada, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

Mi actuación y/o trayectoria personal no son ni han sido contrarios a los principios de igualdad y no he sido sancionada por infracción muy grave o condenada por resolución administrativa o sentencia judicial firmes por incumplimiento de las obligaciones sobre igualdad de trato y oportunidades del Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo aplicable; por decisiones discriminatorias por razón de sexo; por acoso sexual en el trabajo según lo establecido en la Ley orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Autorizar al Departamento Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y a la sociedad Interbiak a recabar en su nombre la información y, en su caso, los certificados relativos a la acreditación de estar al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, y cualquier otra información necesaria para comprobar la veracidad de lo aquí declarado.

Y para que así conste a efectos de la documentación a presentar con la presente solicitud de subvención:

En Bilbao, a..... de..... de.....

Firmado:





III. ERANSKINA

Dirulaguntzak berritzea

.....

..... JAUNAK/ANDREAK

.....NAN zenbakidunak,

jakinarazpenetarako helbidea (helbidea, posta-kodea eta udalerrria)

.....

.....duenak eta

.....

helbide elektronikoa duenak,

Bizkaiko Foru Aldundiarenaren(e)ko/..... Foru Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriarekin bat etorrira (foru dekretu horren bidez, errepide-azpiegitura bidesaridunak erabiltzen dituzten herritarrentzako dirulaguntzen programaren 2023. urterako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira; dirulaguntzen helburua da berdintasun-baldintzak sustatzea lan- eta prestakuntza-jardueretara joateko eta jarduera horiek egiteko joan-etorrietan), jakinarazten du jarraitu nahi duela dekretu horretan araututako dirulaguntzen onuraduna izaten, eta eskatzen du foru dekretuan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharretik salbuesteko; izan ere, ez dago inolako aldaketarik Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko irailaren 13ko 1013/2021 Foru Dekretuan araututako dirulaguntzen onuradun izateko bere egunean aurkeztutako dokumentazioari dagokionez —erantzukizunpeko adierazpenaren edukia barne—; foru dekretu horren bidez, AP-68 azpiegitura (Bilbo-Zaragoza autobidea) foru aldundien titulartasuneko ordainpeko tarteetan erabiltzen dituzten herritarrentzako dirulaguntzen programaren 2022. urterako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.

Eskabide hau sinatzeak berekin dakar Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Foru Sailari eta Interbiak sozietateari baimena ematea egiaztatzeko ea benetakoak diren interesdunak eskabidean emaniko datuak, eta erabilera partikularreko ibilgailu arina ez dela erabiltzen ezein jardura profesional, enpresariak edo ekonomikotarako.

Interesdunak ematen dituen datuak foru dekretu honetatik eratoritzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen

ANEXO III

Renovación de subvenciones

DOÑA/DON.....

.....

con D.N.I. nº.....

y domicilio a efecto de notificaciones (dirección, código postal y municipio).....

.....

y dirección de correo electrónico

.....

Comunica, conforme a la Disposición adicional primera del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia .../..., de ... de..., por el que se aprueban las bases reguladoras del programa de subvenciones destinado a promover con ello condiciones más igualitarias en la prestación de la política pública de movilidad por la utilización de infraestructuras viarias sometidas a peaje y su convocatoria para 2023, su voluntad de continuar como persona beneficiaria de las ayudas en él reguladas, solicitando ser eximida de la obligación de presentar la documentación indicada en el citado Decreto Foral, por no haber variación alguna respecto a la aportada en su día, incluido el contenido de su declaración responsable, a efecto de ser reconocido beneficiaria de las ayudas reguladas en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 103/2022, de 13 de septiembre por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria para el año 2022 de subvenciones destinadas a personas físicas usuarias de la infraestructura AP-68 (autopista Bilbao-Zaragoza) en los tramos sometidos a peaje y de titularidad de las diputaciones forales

La firma de la presente conllevará la autorización al Departamento Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y a Interbiak para comprobar cualesquiera de los datos consignados por la persona interesada, así como la no afección del vehículo ligero de uso particular a actividad profesional, empresarial o económica alguna.

De acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento





tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (erregelamendu horren bidez, Datuak babesteko erregelamendu orokorrari buruzko 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen da) eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa. Foru dekretu honek aurrez ikusitakoaren arabera, datuak zuzenki erlazionatutako organismoei komunikatu ahal izango zaizkie foru dekretuan jasotako aurreikuspenen kudeaketa dela eta. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik. Foru dekretuan aurrez ikusitakoaren kudeaketa administratiborako beharrezko epean zehar bakarrik mantenduko dira datuak.

Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezereztzeko ("ahaztua izateko eskubidea"), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan erreboka dezake lehen adierazitako onarpena. Interesdunei jakinarazten zaie Interbiak Bizkaia S.A. - M.P.ek (helbidea: Kanariar Uharteak, 19, 1. solairua, 48015, Bilbo) eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak tratatuko dituztela datu pertsonalak entitate eta pertsona fisikoen saileko erregistroari dagokionez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak bere egoitza elektronikoari dagokionez.

Horrez gainera, harremanetan jar daiteke adierazitako erakundeetan datuak babesteko dauden ordezkariarekin; horretarako, idazki bat bidali behar dio Bizkaiko Foru Aldundiko Datuak Babesteko ordezkariari, helbide honetara: Kale Nagusia, 25, 48009, Bilbo.

Halaber izango du eskubidea erreklamazioa aurkezteko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzari zuzenduta.

Bilbon, 2023koaren(e)(a)n

Sinadura:

general de protección de datos) y Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos de carácter personal y garantías de los derechos digitales, los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del presente Decreto Foral. Conforme a lo previsto en el presente Decreto Foral, los datos podrán ser comunicados a los organismos directamente relacionados con la gestión de las previsiones recogidas en el Decreto Foral. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada. Los datos se conservarán durante el plazo necesario para la gestión administrativa de lo previsto en el presente Decreto Foral.

En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión ("derecho al olvido"), limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Interbiak Bizkaia S.A. M.P., con domicilio en Islas Canarias, 19 - 1º, de 48015 Bilbao y por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial en cuanto al Registro de entidades y personas físicas departamental y por la Diputación Foral de Bizkaia en relación a su sede electrónica. Asimismo, podrá contactar con la persona delegada de protección de datos de las organizaciones indicadas dirigiendo un escrito a: Delegada de Protección de Datos de la Diputación Foral de Bizkaia, Gran Vía 25, 48009 Bilbao.

También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos.

En Bilbao, a ... de ... de 2023

Firmado.:

